

2 Euskaltasuna, hiritik begiratuta

Eduardo Apodaka

UPV/EHU - Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea

eduardo.apodaka@ehu.es

Sarrera-data: 2012-04-04 | Onartze-data: 2012-06-20

Laburpena. Osteratxo bat egiteko gonbitea duzue artikulu hau. Hitzaldia izaten jaio zen: Euskaltasuna hiritik. Donostia 2016 aitzakia hartuta, baina hona idatzizko testu eginda heldu da. Hiria eta euskaltasuna izan zen hitzaldi haren gaia; eta horixe bera dut hemen gogoeta-gai. Hala ere, artikulua mamia euskara hipermodernitate deitzen den hiri-bizimoduan bizitzeko nik behar dudana apartatua da. Bestela esan, euskaldun kaletarra naizen honek bereak eta bi egiten ditu teoria nekagarrietan barna eta noizbait euskaltasunarentzako bizigarririk topatzen dudala uste dut, hala ote den seguru egon gabe. Horiek bilduta, euskaltasunak behar duen paradigma hipermodernoa antolatze aldera ekarpen apala egin nahiko nuke, besterik ez. • **Hitz-gakoak:** *Hiria, modernitatea, euskaltasuna, hizkuntza-komunitatea, identitate politikoa, motibazioa.*

Abstract. Basqueness, seen from the city. This paper invites you to go on a trip. It started off as a lecture: Basqueness from the city. On the excuse of Donostia-San Sebastian 2016 (European Capital of Culture 2016), but has turned up here in the form of a written text. City and Basqueness were the theme of the lecture; and that is precisely the subject I am reflecting on here. Nevertheless, the central theme of the paper is that the Basque language is the device I need to experience urban life known as hypermodernity. To put it another way, I am a Basque-speaking townie who has been wading through heavy-going theories, and at some point I think I have come across something that breathes life into Basqueness, but I am not absolutely sure about it. So by bringing all these things together, all I want to do is make a modest contribution towards organising the hypermodern paradigm that Basqueness needs. • **Key words:** *City, modernity, Basqueness, speech community, political identity, motivation.*

1. HIRIA, EUSKARAREN AURKAKO KONSPIRAZIOA

Hiria bizigune mota bat izateaz gain ideologia da. Pluralismoa, demokrazia, indibiduoia, modernitatea, askatasuna eta halako hitzak darabiltza ideologia horrek. Ondo ezagutzen dugu, gurekin bizi da. Gure pentsatze-mahaian esertzen zaigu egunero. Erromatikoei esker herriari ere atera ahal diogu zukurik zerbait, baina hirirako eta hiritarrentzat den heinean. Ez berez, ez bere baitarako, ezta bere onerako ere. Hiria da gure gogoaren bazkalekua. Hiriaren ideologiak hiria historiaz eta kulturaz haraindi izan den eta den jendarte-proiektu (askatzaile) gisa aurkezten digu.

Hiribarne, Uriguen, Uribarri eta Irizar guztiek pentsatuko dute Euskal Herria hiriz gainezka zegoela abizen hiritar horiek sortu zirenean; ez dabilta oker. Baina garai hartako hiriak, besterik gabe, biziguneak ziren. Bazuten izan geroago hiriaren muina izan beharko zuena: jendeak eta bizi-baliabideak kontzentratzeko guneak zirelako. Horretara mugatzen zen *hiritasun* hura, artean Hiriaren ideologia sortu barik zela, hiria bilgune babestua baino ez zen. Baina, hala ere, hirixka horietan sortu zen, herrialde honi dagokionez (eta European beste leku askotan bezala), baserriaren kontra altxatuko zen “mundu urbano”, mundu kaletarra hain zuzen. Kalea da hiriaren muina: etxartean sortzen baita etxe bakoitzaz harago den eremu publikoa, baita baserri-aldean ere, baina kalean etxe-artekoa estuagoa, trinkoagoa eta mamitsuagoa da beti. Ezarian, etxe-arteak espazio publikoa bereganatu zuen, plazan hain zuzen.

Hiria sortzez askotariko jendeen eta zerbitzuen kontzentrazioa da. Eta hala denez, hiria boterearen kontzentrazioa da. Hirian bildu eta trinkotu diren jendeek hirian bizitzen ikasi behar dute, hau da, euren bizi-erritmoak sinkronizatu behar dituzte. Beste edozein giza taldeetan bezala, baina hirira (eredu idealaren arabera) *desberdinak* elkartu direnez, berariaz ikasi beharko dute hiri-eremuan, plazan eta kalean batera bizitzen, nor bere etxean betiko eran bizi den bitartean. Hala bada, hiria polikronia lokalizatu bat da, eta elkarrekin bizi beharrak sinkronizatua.

Alabaina, hiri forma asko izan dira historian: bide edo bidegurutze-hiriak, inperio-hiriak, estatu-hiriak, nazio-hiriak... Eta azken horrek bizi gaitu, oraindik orain. Nazio-hiria da Modernitatearen bihotza. Halako hiriak gehienetan errege-gorteen enparauan sortu ziren, edo errege-hiri sarean. Harresidun merkatu handiak eta kale-arte trinkoak ziren. Han bizi ziren langile berezituak: artisauak, merkatariak, eskribauak eta beste. Hitz batean, burgesak, kaletarrak.

Hirien artean merkataritza-harremanak ugaltu ahala, sinkronizatu eta komunikatu egin ziren eta kasu askotan merkatu bat sortu zen: noraino

Hiria sortzez askotariko jendeen eta zerbitzuen kontzentrazioa da. Eta hala denez, hiria boterearen kontzentrazioa da. Hirian bildu eta trinkotu diren jendeek hirian bizitzen ikasi behar dute, hau da, euren bizi-erritmoak sinkronizatu behar dituzte. Hiria polikronia lokalizatu bat da, eta elkarrekin bizi beharrak sinkronizatua.

Erdara da nazioaren sinkronia. Ez bakarrik mintzaira. Erdara da hiri-jakintza modernoa, bizimodu zibilizatua, arrazoiaren eta aurrerapenaren estiloa.

koroa, haraino merkatua. Horrela, koroarekiko lotura, hiriarekikoaren gainean ezarri zen, eta maila handiago bateko sinkronizazioa sortu zen espazio publiko berri batean; estatuak, ez hiriak, sinkronizatuko zuena.

Hori dena nazioaren zentzu politiko modernoa jaio baino lehen gertatu zen. Hala ere, burgesek boterea eskuratu arau, gero eta mesfidantza handiago erakutsi zieten boterearen legitimazio transzendente eta tradizionaleri. Ezin zuten erraz eta eroso onartu agintea norberaren ahaleginetatik kanpo ezartzen zuen paradigma (pre)politiko hura; haien us-tetan, agintea ez zen odol- eta leinu-argitasunak besterik gabe ematen zuen gaitasun bat, ez zen ere behin betiko ezarritako ordenamendu bat. Negoziatu beharreko kontu bat zen, transakzio baten emaitza. Eta transakzio ideal guztiak bezala, parekoen artekoa. Hitz gutxitan, hirietan hasi ziren pentsatzen errege-agintearen mendean bizi zirenak jatorriz parekoak zirela, eta hala izanik, agintearekiko loturak berdina behar zuela. Nazioa deitu zioten horri, *jaiotza*.

Nazio-merkatuak eta nazio-estatuak errege-hiri baten inguruan jaio eta atondu ziren (hiri horren metastasiak direla esan genezake, inoiz ere hiri-sare batena). Nazio-hiriaren erdigune sinboliko eta funtzionaletik hedatu zen nazioagintza, eta ezarian estatu-indarrak heltzen ziren bazter guztietara iritsiko zen nazio-sinkronizazioa. Probintzietako hiritarrek hiriburukoaren antzera bizi nahi eta behar zuten hiritar osoa izatekotan, herri eta baserrietakoek geroago jasoko zuten bizimodu eta izaera berria, modernizatu ahala. Estatuko jende guztiek, urrunak eta arrotzak izanagatik ere, Hiriaren koreografian, Nazioaren koreografian parte hartuko zuten goiz edo berandu. Bestela, modernizatu barik eta hiritartasun osoa lortu gabe, arrotz eta motz geratuko ziren euren zokokeria primitiboan.

Esan barik doa, erdara da nazioaren sinkronia. Ez bakarrik mintzaira. Erdara da hiri-jakintza modernoa, bizimodu zibilizatua, arrazoiaren eta aurrerapenaren estiloa. Erdarazkoak dira kale asfaltatuak, autoak eta trenak, erdarazkoa hiritik datozen argindarra eta administrazioa, erdarazkoak direlako inbentu moderno guztiak: liburuak, soldaduska, zerga zentralizatuak, telebista, eta urrutizkina bera ere. Euskara, berriz, tokiko anabasa eta aniztasun desinkronizatua da; euskara ez da bat, asko eta askotarikoa beti; euskara baserri-jakintza lokala, euskara tradizioz eta ikasi gabe jaso den jakintza primitiboa, kasik naturala, baino ez da. Ez du arterik, ezta artifiziorik ere; ez du inbentu handirik. Bizimodu sinple, tolesgabe eta xalo baten euskarria da.

Hiria ez da euskalduna. Bilbon XX mendearen hasieran laurden baten inguru dira euskaldunak (Aizpuru, 2012). Baina ez dira, inondik inora, hiritar erdua. Horietako asko eta asko kaletar hutsak izan arren,

duten mintzoagatik inguruko bazter lohi eta basatsuetakoekin berdintzen dituzte erdaldun hiritarrek: *aldeanos, jebos, casheros*... Donostian, Eibarren, Gasteizen edo Baionan hamaika euskaldun bizi arren, ez dute hiririk. Ez dira hirikoak. Hiria, esan bezala, erdara da. Edo, hobe esan, erdara da hiritar bizimodu modernoari euskaldun modernizatuak eman behar izan dion izena eta ikasi behar izan duen jakintza. Batzuetan, erdal jakintza hura euskaraz ematen saiatu da; orduan itzultzailea da, kontra-bandista, garraiolaria, zamaketaria... Erdal hiriaren kontra *konspiratzen* du euskal jendeak¹.

2. POSTHIRIA, EUSKARAREN AURKAKO KONSPIRAZIOA

I
XIX mendearen hasieran Desinkronia Aroa heldu da. Egia esan, bestelako sinkronia bat zabaldu da mundu osoan. Globalizazioa deritzogu. Nazio-hirietan zehar, nazio-erritmoan bizi diren bazter guztietan zehar, *hiri unformatuen sarea* antolatzen ari da, alegia, hala-holako sinkronizazio global bat ari da zertzen. Hiri globala ez da inon eta nonahi da. Hipermoderno da Modernitatearen joera guztietan aurrera joan delako ari-neketan: kontzentrazio masibo eta anonimoak, inguruko bazter guztien kolonizazioa, bizi-moduen indibidualizazioa, harreman guztien pribatizazioa eta merkantilizazioa, lotura eta kontaktuen telematizazioa, eta beste *zio* batzuk... Halako eraldaketei modernizatzea deitu diete usu. Funtsean tradizioan bizi omen ziren jendarteen loturak desegin eta horien ordezkari trukeen eta betebeharren sare funtzionalak ezartzea da prozesu modernizatzailea. Hala, jendarte-lokarriaren zentzu nagusia “abiapuntuko elkartasun” batetik “xede-elkarmenpeketasun” batera igaro da: balio, praktika eta sinesmen komunen ordezkari, norberaren interesak eta horiek betetze alderako kalkulua gailendu dira Bejondeigula: horrela norberaren hautamena handitzen omen da, rol-banaketa zurrinak malgutzen omen dira, mugikortasun sozialaren ametsa betetzen omen da, tokiko elkargo itogarrien ordezkari mundu-merkatuen zabaltasuna omen dugu... Ideologia horren bultzadaz, ezin lasterrago doa Hipermodernitatea, ondorio kaltegarriei itsu.

Hipermodernitatea, finean, hiri globalaren tankerara egiten ari den berrurbanizatzeko orokorra da. Gero eta gehiago, egiazko hiri bakarra *telehiri globala* da, nahiz eta denbora eta leku komunak eta partikularrak birrinduz eta *pasticheen* zein imitazioen bidez eraikitzen ari den. Hiri hau da, beraz, sinkronia globalaren hiria. Lehengo hirian, berriz, desinkronia lokala da nagusi. Bestela esan, lekuari loturik egon gabe, polikroniak lo-

**Euskara, berriz,
tokiko anabasa
eta aniztasun
desinkronizatua
da; euskara ez da
bat, asko eta
askotarikoa beti.**

**Hiri
hipermodernoan,
hala nola gizarte
hipermodernoan,
pasabideak eta
kontsumo- edo
zerbitzu-
hornitegiak dira
nagusi.**

katu dira. Hiri berean gaudela ere, oso erritmo eta modu diferenteetan bizi gaitezke. Hemen garela, lekutan gara. Hiri global hori beraz, hiri hipermodernoetan zehar ehuntzen ari den konexio- eta trafiko-korridoreen sarea da. Hiri klonetan ari da prozesua suspertzen. Mundua osorik barnebiltzen ei dute hiri klon horiek. Mundu-hiriak dira, horrenbestez.

Ñabardurak izan badira, hala ere. Oraindik orain, hiriak nazio-hiriak dira, hau da, nazioa da hiri horien marko orokorra, nazio-estatuetan daude eta nazioa dute kanpo-atmosfera orokor. Antza denez, denbora kontua da atmosfera hori galtzea. Guztiz galdu artean, badira hiri guztietan hiria bizitzeko modu kontrajarriak, lehengo eta oraingo koreografin arabera mugitzen direnak. Labur:

- *Hiria bizigunea da:* bizitzaren eszenatokia, eguneroko praktketan gure egiten dugun *habitat* bat, auzotasun nabar eta zail baten eszenatokia, gestionatu eta borrokatu behar den bizitokia... Hirian bizi gara, hiria garenez. Halako bizieran hiriak, habitata den aldetik, badu norberaren autokontzeptuan eginkizun bat. Hiri honek baditu arazorik asko, ez da paradisu bat, baina jendeak biziera horretan ikasten du komunaren balioa (eta nekea).
- *Hiria pasabidea da,* baliabide bat, aukerak eskura jartzen dituen zerbitzugune bat, kontsumitu eta bisitatzeko dagoen eszenatoki hutsal bat, ardurarik ematen ez dugun kontsumo-objektu bat, identifikazio iragankor estetikoa baino ez dugu handik hartuko. *Trafikoa* da hiri honen eredu; turistaren hiria edo aldi baterako egoiliarrarena da: ez da hirian bizi, hiria esperimentatu eta gero badoa handik. Biziera honek ez du hiriarekiko lotura handia sortzen, askoz jota hiria esperientzia pertsonal gisan hartzen da. Eta axola gutxi du hiriak arazo eta istilu kolektiboak dituen ala ez, beti baitago beste inora joatea.

Errez uztartuko ditugu azken bizipen hau eta Hipermodernitatea. Hiri hipermodernoan, hala nola gizarte hipermodernoan, pasabideak eta kontsumo- edo zerbitzu-hornitegiak dira nagusi. Eremu pribatuak, besteentzat gero eta pribatugoak, hazi eta gogortu ahala, agerian gertzen den oro, hau da, eremu zabal publikoa, autopistaz eta zerbitzugunez beteko da. Lanaz landa, kanpoan egin behar den guztia zerbitzuguneetara laster eta seguru joatea baino ez da. Barkatu gehiegikeria baina uste dut trazu larriek hobeto margotzen dutela gure gaurko paisaia. Eta lagun-garriak dira, hitz gutxitan diagnostiko oro hartzaileak egin behar direnean. Orain hasierako atal bi hauek laburtzeko, bi ondorio, hauek ere larri xamar:

- Bat: euskaldunek ez zuten izan euskal gorte-hiririk, ezta nazio-hiririk ere. Ez zuten izan euskal gizarte modernorik. Ez zuten lortu ezta sortu, euskaldunen sinkronizazioa (ez, hortaz, euskal populurik, ez euskal publikorik, ez, hitz batean, erritmo batera bizi zen euskal jendarterik). Non (geratu) zen, hortaz, euskal bizi-mundua modernitatean?
- Bi: ezin gara bizi euskaraz hirian, ez dugu euskal hiririk. Ez genuen sinkronia hori lortu, eta Desinkronia Aroak harrapatu gaitu. Nola biziko dugu euskara hiri hipermodernoren trafiko-korridoreetan barna? Euskal bizi-jarduerak, lekuak, taldeak... desfragmentatu ahal ditugu halako hirian?

Horrenbestez, hiria ez da euskaraz bizitzeko gune eroso izan, ez nazio-hiri modernoak barreiatu zirenetik eta ez oraingo honetako hiri globala hedatzen ari dela. Hara hiria, ekosistema txarra euskararentzat, eta hala ere izango duen bakarra. Bertan ikasi behar dute euskaldunek konspiratzen, alegia arnasa elkarrekin hartzen².

3. BALTIKOTIK, HIRU GIZON ETA HIZKUNTZA-FILOSOFIA BAT

Badira Europan izkina batzuk non herri periferikoak, kultura handien eta txikien muga eta intersekzioetan bizi diren. Bat, berbarako, Bizkaiko Golkoa. Beste bat, nafar itsasotik urrun, izkina baltikoa. Hara joango naiz laguntza bila, digresio labur bat baino ez da izango.

Hiru gizon Baltikotik: Johan Georg Hamann, Johan Gottfried Herder eta Jacob von Ueskill. Azkenarengandik jaso behar duguna beherago azalduko dut. Aurreneko biak XVIII mendearen bigarren erdialdean bizi izan ziren. Erromantizismoa asmatu eta Ilustrazioaren aurka borrokatu omen ziren. Haatik ere, garai hartako alemaniar intelektual eta artista askorengan izugarrizko eragina izan omen zuten eta, honako honetan interesatzen zaigunez, hizkuntzari buruzko irudikapena eta filosofia irauli zuten, hau omen gabe³.

Zer zioten hizkuntzaz, bada? Gutxi asko, eta nire hitzak erabilia: hizkuntza ez da tresna bat. Baliabidea izan behar du, bizibeharrez egiten baitugu berba, baina hizkuntza pentsamendu eta errealtatearen matrizea da, bizipenen edota esperientzien konfigurazioa, antolamendua, hitz batean. Alabaina, zentzu zabal batean “sinbolismoa” erabili ahal dugu hizkuntzaren dohaina adierazteko. Sinbolismorik gabe ezin pentsatu, ezin sentitu, ez dago ezer jakiterik sinboloak erabili gabe. Izatez, matrize

Hiria ez da euskaraz bizitzeko gune eroso izan, ez nazio-hiri modernoak barreiatu zirenetik eta ez oraingo honetako hiri globala hedatzen ari dela.

Izatez, matrize hura kolektiboa da, baina norberaren ahotan baino ez da bizi, beti partikular eta beti orain eta hemengoa, beti mintzo bizia. Hortaz, hizkuntza ez da inondik inora norberaren baliabide huts bat.

hura kolektiboa da, baina norberaren ahotan baino ez da bizi, beti partikular eta beti orain eta hemengoa, beti mintzo bizia. Hortaz, hizkuntza ez da inondik inora norberaren baliabide huts bat, hori bada ere. Tamalez, horretara mugatu nahi izan du hizkuntza-filosofia cartesiar orok.

Cartesiarren ustez ezagutzaren subjektuak, ezagutzaren objektua eta ezagutzaren tresnak guztiz dira bereziak. Horrenbestez, hizkuntza pertsonarengandik kanpo dagoen tresna bat da. Tresna edo lanabes guztiak bezala, xedearen eta eginkizunaren arabera diseinatu, egina eta erabilia. Zein da tresna honen eginkizuna? Erraz askoa: munduko gauzak eta gertaerak gogamenaren ideiekin lotzea eta komunikatzea. Alde batetik, beraz, mundua dugu, bere horretan objektu, eta bestetik gogamena, bere gain izaki, subjektu. Gogamenak aurrea hartu diot hizkuntzari eta ez dakigu nola baina sinboloen boteretik libro bizi da. Horregatik, mundura nola hurbilduko den, zein baliabide erabiliko duen hautatu beharko du, behin baino gehiagotan ere berak asmoz eta jakitez paratuko du tresna hura. Arrazoiak jende xaloen asta-mintzaiteran munduari erazko kopia emateko gai denik topatuko ez balu, eginkizun hori ganoraz egingo duena asmatu beharko luke. Leibnizi egotzi ohi zaio ideia hura: hizkuntza arrazional eta logiko bat asmatuko dugu eta horrela Babeletik pairatu dugun zorigaitzari agur esango diogu betiko. Logika da sinbolismo naturalen miseriatik askatuko gaituen sinbolismo unibertsal modernoa. Lengoia logikoa munduaren ispilu ezin fidelagoa izanen da. Pentsamenduari munduaren isla ogen bakoa emango dio.

Baina, benetan izan daiteke gogamenik sinbolismorik gabe? Ez al da pentsamendua sinboloak erabiltzeko gaitasuna? Egia da, matrize simboliko oinarritzotik harago (demagun halakorik dela), beste batzuk erabili ahal ditugula, esaterako: hizkuntza bat baino gehiago dakizkienak hauta dezake zein erabili. Are gehiago, hizkuntza bakarrik dakien horrek ere baditu mintzaira mota asko, mintzaira bera moldatuko du, erretorika onean bezala, solaskideak liluratzeko. Mintzaira berdin erabili ahal da zuzen mundua ezagutzeko, edota arte fin eta maltzurraz jendea manipulatzen. Honela, bada, agente estrategiko edota arrazionalaren baliabide bihurtu zaigu mintzoa.

Cartesia errepublikatik *Lehenegowittgenstein* konderriraino, Arrazoi Gordinaren Liga osoan, halako pentsamoldea zabaldu zen. Horraino, izan ere, *Lehengowittgensteineko* mugaz honaindi gauzak bestelakoak baitira. Mugaz hona, pentsamendua eta sinbolismoa bat-bera dira. Mugaz hona, ez da pentsamendua eta sentsibilitatea guztiz banatzen eta kontrajartzen, munduarekin dugun kontaktua beti izaten baita kognitibo eta sentsitiboa, munduarekin dugun harremana ez baita Behatzaile Arra-

zionalaren urrutiko begirada hotz eta arrotza, baizik eta munduan lo-kazturik dagoen esku-hartzaile konkretuaren bizipena. Mugaz hona, mintzoa jende-izatearen matrizea da: etxea, abaroa. Mugaz hona ez dago hizkuntza perfektuaren oroimin sendaezinik, izan ere, bertako mintzairak inperfektuak dira beti, eta aldi berean gai dira euren akats eta dohainak aztertu eta artezteko, mintzairak beti izaten baitira joko anitzeko eremu zabal eta mugaezinak. Mugaz hona, mintzairak, azal oker eta hutsalak baino, materiak dira, edukia, kolorea eta pisua dituztenak, hitzak izan praktikak direlako, jendarteko joko, jolas, jardun eta solasa. Horregatik ere, mugaz hona, mintzairak ez dute gustuko denotatze hutsa (horren motza da seinalatzea!), eta konnotazio ireki eta nabarretan ibiltzen dira olgetan. Mugaz hona, mintzairak bizi-munduaren matrizeak direlako, beren halakoan bizi dugu mundua, ezinbestez. Horrek esan nahi du mintzakideek ez dutela munduaz berba egiten, baizik eta mundu komun bat dutela (egiten) hitz komun en ilusioak ibiltzen dituztenean.

Dakardan orain azken gonbidatua, Jacob von Uexküll (1864-1944). Besteak bezala Baltiko Itsasoko kostaldeetan bizi izan zen eta haren eragina luze, zabal eta sendoa izan da Europako filosofian⁴. Hala ere, nahikoa ezezaguna da. Izan duen ospe eskasa ideia ezin erakargarriago bati zor dio: bizidun orok harreman semiotikoa du inguruarekin, bizitzak horretara bultzatzen du; asmoz eta gogoz zabaltzen da ingurura eta hala bere egiten, baina beti ere, “biltze funtzionaletan”, hau da, biziduna eta ingurua zeinuz eta ekintzazko lotura batean biltzen dira bizi beharrez. Ondorioz, mundu berezi bana dute bizidunek: *umwelt* bana (alegia, inguru-mundu bana).

Uexküll biologoa zen, etologian jardun zuen ikuspuntu antidarwiniano batetik. Zertarako ekarri hona? Normalean soziologian famatu den Bourdieuren *habitus*a erabiliko nuen (pentsatzeko, sentitzeko eta jarduteko disposizio praktikoen multzoa da *habitus* delako hori), edo jendarte jakin bati dagozkion *doxa*, *inkontziente epistemikoa*, edota *eremua*⁵. Baina Uexküllekek hedatu zuen bizitzaren zientzietara zeinugintza eta simbolismoa. Eta hori eginez, subjektu / objektu aurkaritza gainditzeko bidea urratu zuen. Filosofian eta neurri apalago batean etologian eta biologian hartu zuten berak botatako erronka (Sharov 2011). Bizidunek badute, haren ustetan, inguru propio bat, harekin nahasian bizi dira, euren “baita” da hori. Ezin banandu bizirik direino. Eta inguru hori ez da inguru fisiko edo kimiko huts bat *semiosfera* da, alegia inguru semiotiko bat (Lotman 1990). Niri hurbilagoak zaizkit hitzak erabiliz: bizidunak inguruari zentzu semiotiko-funtzionalez lotzen bazaizkio, hori baldin bada euren izatea, jendearen kasuan zer esan? Psikea da lotze hori eta hizkuntza jendearen jardun semiotiko-funtzional nagusia.

Mintzaira bai munduaren, bai jendearen eratzeta osatze-bidea da. Baina aldi berean, mintzairak bere gainean tolesteko gaitasuna du.

**Eta maiz,
mintzaira
bereziak sortzen
dira hizkuntza-
eginkizunak
banatzeko. Kasu
horietan
mintzaira bat
biltze funtzional
baten gaia eta
emaitza izan
daiteke.**

Ez naiz teoria hauen ur sakoetan murgilduko, esan bezala, digresio txiki bat baina ez da izan bidaia hau. *Umwelt, semiosfera, matrizea, sinbolismoa...* “bizi-inguru sinbolikoa” iritziko nioke, edo filosofia eta soziologia fenomenologikoan bezala “bizi-mundua”. Abiapuntu bat behar nuen, akaso helmuga bera.

Labur dezadan abiapuntua: jendea bizidun ororen antzera, bere bizi-ingurua sortu behar du. Langintza hori, jendearen kasuan, sinbolismo orokor edota multiforme batetik mintzairara iragan zen aspaldi. Are gehiago, jendea mintzo kolektiboan bere burua trebatu eta landu ahala agertu zen, jendatu zen. Horregatik, zuzeneko mundu praktikoa eta sozial batean bizi gara, eta mundu hartan direnak eta ez direnak zuzenean bizi ditugu, huraxe da gure bizi-mundua. Bizi-munduaren matrizea mintzaira da, mundu hartan atmosferarena egiten du: inguruan dugun semiosfera, ilusio komunehundura. Mintzaira, beraz, bai munduaren, bai jendearen eratze- eta osatze-bidea da. Gutxienez, matrize bizi den artio. Baina aldi berean, mintzairak bere gainean tolesteko gaitasuna du, hau da, mintzaira matrizea dela ere, munduko objektu bihurtu ahal da. Maiz gaitasun hori mintzairaren arteko jokoa da. Eta maiz, mintzaira bereziak sortzen dira hizkuntza-eginkizunak banatzeko. Kasu horietan mintzaira bat biltze funtzionalen matrize izatetik, objektu bilakatu den neurrian, biltze funtzional baten gaia eta emaitza izan daiteke. Ez da hala derrigor, azken buruan, jendearen biltze funtzional oinarritzakoa “jendartera biltzea” da eta inor gutxi bizi da “jende-arte” bakar batean. Inor gutxi (izaten) da mintzaira-zirkulu bakar batean, inor gutxi da mintzaira bakar bat.

4. HIZKUNTZA, PARADIGMA PSIKOEPISTEMIKO MODERNOAN

I
Eta hala ere, izan badira halakoak. Elebakar linguistiko eta psikikoak dira horiek. Eta badira era berean elebakar moderno askoak. Nazio-egituretan jaio ziren eta globalizazioan ingelesaren abaroen bizi daitezke ondo eroso. Kurioso bada ere, cartesian filosofiaren ikuspuntuarekin bat egin zuten berehala: hizkuntza, bistan da, tresna bat da, neutroa delako, ez du balio propiorik barnebiltzen, ezta “mundu-ikuskerarik” edo halako ameskeria erromantikorik ere. Izan daiteke, onartuko digute, hizkuntza primitibo eta exotikoren bat, erreala ikuskatzeko gai ez dena, baina gure hizkuntza gardenak errealekin bat egiten du. Gu bai gu bizi baikara errealean, hizkuntza kargatu horietan bizi behar duten gaixo horiek ez bezala. Aski ezaguna zaigu erretolika hau, haren arabera irizten diogu hizkuntzari normala edota naturala: bizi-mundua eta mintzaira

banaezinak direneko bizipena, mintzakideek mintzairarekiko distantziarik ez duteneko. Naturaltasun hori nahiko genuke: normaltasun oro hartzailea, mintzairazko atmosfera babeslea, euskal bizi-ingurua jator eta abegikor... Baina, eta hori da nire tesia, euskaldunok nekez izango dugu une hori, eta ez dugu sekula ere hizkuntza nagusien indar unibertsal objektibatua, gurea indar subjektiboen mende biziko den atmosfera partzial eta babestua izango da. Dena den, lantzean behin une edota egoera horretako bizipenak izango ditugu: haurtzaroan, lagunartean, norberarekiko gogoetan... Uneak izango ditugu. Sarri une edo aro horrekin egiten dugu amets, euskal herri euskaldun hura aterpe psikologiko edota sinboliko gisa erabiltzen dugu. Denok dugu, uste dut, euskal bizi-munduarekin konexioren bat, esan bezala, haurtzaroko oroi-penak, lagunarteko solasaldiak, amama baten berba jariora, mendi arteko hizkera hura, euskaltegiko atmosfera itxi eta babestu hori... Nonbaiten eta noizbait bada euskal herria. Ontogenesisia eta filogenesisia nahasten dira kontatera hauetan, norberaren euskal bizi-mundua eta euskal herriarena nahasten direlako. Jakin badakigu modernizazioak, mundu modernoak (hiriak?), hautsi egin zituela euskal bizi-munduaren osasuna eta osotasuna. Hondarretan bizi gara.

Modernizazioa ez da soilik bizitzeko manera aldatzen duten harreman eta traste berrien kontua. Modernizazioa jendearen kontzientzia eraldatzen duen oldarra baita. Mundua bizitzeko eta eratzeko paradigma bat da, psikoepistemologia berezi bat. Hizkuntzari dagokiona ikusi dugunez, aise jorratuko dugu “modernizazioaren paradigma psikoepistemiko nagusia” subjektu/objektu ardatzaren inguruan. Bruno Latouren laguntzaz jorratu ere. Haren aburuz (1991), Modernitatea hiru bermeko erakuntza da: (1) objektuaren natura (izate-izana) transzendentala da (ez du jendeak eraiki behar, eratu edo sortu, soilik aurkitu); (2) jendarte immanentea da (dela estatua, dela subjektua, jendeak, herritarrak, bere burua sortu, eraiki edo eratu behar du); eta azkena (3), bi eremu horiek, bi izate horiek ondo bereizita gorde behar dira. Hitz gutxitan, natura eta gizakia, objektua eta subjektua, bi erresuma ezberdin dira. Baina Latouren tesia da bereizketa hori ez dela inoiz egiazki osatu, mito gidaria izanagatik ere, ez dela inoiz guztiz burutu. Eta erdizka objektu eta subjektuak direnek populatu dutela modernitatea: sasi-objektuak eta sasi-subjektuak nagusi izan dira, subjektuak objektuaren jaun-da-jabe izan behar zuen horretan.

Baina, hala izan ala ez, paradigma moderno nagusi izan den heinean, ondo zabaldu eta mamitu da ikuspegi hura. Hizkuntzaren kasuan aipatu bezala, “mintzaira bizitik” “gramatika estatiko abstraktura” lerratu zen “egiazkotasuna”. Subjektuak munduko objektu eta gertaerak dominatzen

**Inor gutxi
(izaten) da
mintzaira-
zirkulu bakar
batean, inor gutxi
da mintzaira
bakar bat.**

***Euskaldunok ez
dugu sekula ere
hizkuntza nagu-
sien indar uni-
bertsal objektiba-
tua, gurea indar
subjektiboen
mende biziko den
atmosfera par-
tzial eta babestua
izango da.***

zituela, ihes egin behar zion dominazioari, beregain behar zuen, osoki: mintzaira, beraz, objektu bilakatu zen, gramatika bat edo liburuetan ondo egonkortutako tresna bat, maiz dominazio- eta jauntze-tresna...⁶ Baina subjektuaren matrizea izateari utzi behar izan zion, ez zen izango hautatu gabeko *habitusa*, baizik eta ondo landutako tresna bat, eskolan trebatutako arte bat: gora jotzeko, gerra egiteko edota jendeak eta euren gogoak menderatzeko.

Euskararen historia kontrakoa izan da, objektu eta gramatika izatera helduko zen baina ez zuen infanteen laguntzarik gabe. Euskara ere objektibatuko zuten Modernitatean barrena, baina kodea bainoago, sinboloa izan zedin. Euskara interes-komunitate baten sinboloa bilakatu zuten, komunitate haren bereizgarria izan zedin, ez herri-mintzo bizia, are gutxiago nazio-mintzo armatu eta eskolatua. Horrela ere, *euskalduna* itzul- tzeke erabiltzen ziren *vasco*, *vascongado*, *navarro* edo *vizcaino* hitzen erreferentziak hizkuntzatik lurraldeetara igaro ziren, eta euskara lurralde horietako kasta boteredunen jatorri garbia eta zaharraren froga sinboliko bihurtu. Gerorago, nazionalismoa sortuko zen lurralde-erreferentzia horietatik abiatuta eta ez hizkuntza-komunitate higatutik.

Horrela zokoratu zuten euskal bizi-mundua eta euskaraz mundua zuzenean bizitzeko ahalmena: hizkuntza-komunitatea galtzea eta bizi- ahalmen psikiko hori galtzea batera doaz eta. Mundu hartan, pentsa de- zakegu, euskara ez zen objektu bat, ezta subjektu bat ere, han atmos- fera-mintzaira zen, sinbolismoaren mintza. Abaro horretan jendeak ez zuen asko hitz egingo euskarari buruz, baina dena esango zukeen eus- karaz. Gizarte modernoa ezarri ahala, estatua eta estatu-erakundeak za- baldu eta jendeak homogeneousatu ahala, euskal bizi-munduak zatikatu, higatu eta ahitu egin ziren.

Euskal bizi-munduak oinarritzko bi baldintza beteko zituen: euskal- dunek ez zuten, artean ez, beste “mintzaira hobe eta baliotsuago” bat le- henesten eguneroko praktiketan, eta gehienak elebakarrak izango ziren. Bestela esan, mundu hartan euskarak jendea osoki hartzen zuen (zeregin guztietan, euskara zen mintzoa) eta jendartea ere era batera hartzen zuen. Eta funtsezkoa den beste zerbait: hori dena planifikaziorik, egitas- morik, proiekturik gabe gertatzen zen. Hala ziren gauzak, berez, natural (esan nahi baita, halaxe sortzen ziren jende horien arteko elkarrekintze- tan...) Euskara gorputz kolektiboaren hezur eta mamia zelarik, euskal- dunak gorputz haren irazketa naturalak izango ziren.

Lehendabiziko baldintza eliz dotrinek eta jardunek irauliko zuten, haietara moldatuko zuten euskara zaharra, Europako eta mundu osoko hizkuntza askorekin gertatu bezala, eta dakigunez, horiei esker, europar

phantsamendu-amaraun bakarra mamitu zen eta mintzaira-hierarkia argi bat ezarri: zenbat eta hurbilago mintzaira sakratutik, orduan eta duina-goa⁷. Euskara urrun zen. Bigarrena, hezkuntza eta komunikazioak nazioaren beharretara egokitzearekin irauliko zen: Erdi Arotik arian-arian erdaldundutako lurraldea erruz hazi zen XIXan nazio-makineria martxan jarri zenean.

Horrela ikusita, mundu hori ez zen galdu hondamendi jakin batean; ezarian joan zen higatzen eta ahitzen. Bide-orri argia izan zuen bestelakatzeko hori, haatik. Modernizazioaren bide-orria bera, hain zuzen: estatu-hiritik bazterreko hirietara, hiri haietatik herrietara, handik baserri inguru guztira, azken baserritarra modernizatu arte. Modernizatzeke atzena beti, hierarkia sozialetan azkena: baserritarra, txiroa, analfabetoa, emakumea, zaharra... Halakoengan babestu ziren, modernizazioa Europa osoan hedatzen ari zela, herri-kultura premodernoak (eta handik mundura jalgi zenean, "globo osoan"). Ez da euskaldunen kontua izan, ez soilik. Euskal herri-kulturak bezala, herri-kultura guztiek eraldatu eta moldatu behar izan zuten; hitz batean, modernizatu behar izan zuten. Mintzairari dagokionez, herri-kultura urbanizatu ahala, baserri-mintzaira zatarrak eta landugabeak omen ziren horiek karga astunegia bilakatu ziren hiztunen bizkar okertuetan. Harrezkero, jakintza-molde berriekin batera, hizkuntza-molde berriak ezarri ziren. Hitz egiteko modu berriak: ahozkoaren ordeztasunak, elkarrizketa kolektibo eta zaratsatuaren ordeztasunak, bakarrizketa ordenatua, egoerari lotutakoaren ordeztasunak eta unibertsa, bizi-praktiken esamesen eta berbaroaren ordeztasunak ondo antolatua... Eta, mintzaira eta gogo bereizterik ez dagoenez, munduaren "paradigma psikoepistemikoa" ere aldatu beharra izan zen eta kausa-efektu loturak fenomeno guztien arteko norako bakarreko lotura bilakatu ziren, eta ondorioz ere, munduko izakariak izen bana eta bakar hartu beharko zutelako erabaki zen.

Esan bezala, aldaketa horiek guztiek kontzientzia (gogamena) modernizatu zuten: kalkulua estrategikora moldatuz, erantzun emozionalak izoztera behartuz, mintzaira gramatika eta "meta-lengoaia" logikoez araztuz... Herri-kontzientzia, behinola herri-kultura zeritzon hori, bere gaineko bizi-mundua barik, beste bizi-mundu baten subalternoa bilakatu zen. Ez zuen tokirik jakintza eta bizitza modernoan, ez subjektu gisa... Askoz jota, objektua izan zitekeen (eta hori, dena den, XIX mendean nagusitu zen ideia da, Modernitatearen bigarren oldarrarekin, Erromantizismoarekin). Ikus dezagun historia hau nola antola dezakegun euskal jendeari, euskarari, euskaltasunari edo euskal Zerari dagokionez... Euskal Zera: atzemanezinezko izate bat omen, izate bainoago, ez-izatearen

**Gizarte
modernoan ezarri
ahala, estatu eta
estatu-
erakundeak
zabaldu eta
jendeak
homogeneizatu
ahala, euskal
bizi-mundua
zatikatu, hitzatu
eta ahitu egin
ziren.**

**Mundu hori ez
zen galdu
hondamendi
jakin batean;
ezarian joan zen
higatzen eta
ahitzen.**

zulo beltza omen dena, eta hala ere, etengabe sortarazi, egikaritu eta harritzkoa egin nahi izan dutena, hamaika ahaleginen sorta luzea baita *euskal(Zer)gintza*⁸.

5. EUSKAL ZERAREN ERAIKUNTZA MODERNITATEAN ZEHAR

I Oro har, substantziatik subjektura joan da euskal izatea modernizatu arau, edo proiektioetatik proiektuetara. Baina orain interferentzia- eta interbentzio-historia luze baten berri eman nahi dut. Izan, Modernitatean euskara mintzaira interferitu eta interbenitua izan delako. Erdara da, gaztelera eta frantsesa, interbentzio-indarra. Erdara da euskararen afe-retan erabakiak hartzeko gunea. Esan nahi baita, bere baitan zen bizi-mundu hartan euskaldunak ere bere baitan bizi zuen euskara, hots, euskaraz bizi zen bitartekaritzarik gabe. Ezarian, erdararen artekaritza joan zen sartzen eta euskal jendeak euskararekin zuen lotura psikiko zuzeneko eta immanente hartan esku harturik zentzu-emaile nagusia bilakatu zen erdara: euskara kanpotik bezala ikusten irakatsiko zion modernizazioak euskaldunari, kanpo-ikuste hori erdararena da. Arrozte-bide luzea hasi zen. Lehendabiziko urratsa diglosiaren menturan itzultzaile eta kolonizatzaileen eskutik zein ahotik etorriko zen, demagun Trentoko Kontzilioaren ondorioz, gorputzak diziplinatzearekin batera jendeen gogo ere “ebanjelizatzen” hasi ziren gogo-zaindari berrien eskutik eta ahotik. Bide beretik joango ziren ondorengoak (Larrea, 1994).

Harrezkero, euskara eta oro har euskal mundu zaharra hainbat fasetan objektu otzan, lehengai sinboliko eta ondare beneragarria bilakarazi zuten. Euskaldun gehien-gehienak isilik eta euren baitara bilduta bezala jarraitzen zuten artean. Are gehiago, mintzairadun herri honek isila izatearen ospe madarikatua kargatu behar izan du Modernitatean, isilarazia zenez, haren ahozko produkzio guztia egiazko hitza barik, putza balitz bezala. Ez dut luze eta sakon jorratuko euskal bizi-munduen objektibazioa, ez dut hemen ez astirik, ez lekurik, baina esan dezadan hainbat fasetan eta oso diferenteak izan ziren ekimenetan egin zela, gutxi asko honako hauek zerrendatu ahal dira:

- *Apologia estamental*: euskara eta euskal jendea, foru-erakundeen zerbitzura; odol garbiaren eta jatorri berezi eta zaharraren bermea. Kanpo-agintariei zuzendua zenez, ekimen hau erdaraz egin zen gehien bat; euskaldunak inperioen antolamendu eta egitasmoetan txertatzeko bide izan zen. Euskara bereizgarri bikaina bihurtu zuten,

baina esan bezala, herritik eta euskal jendartetik kanpo erabiltzeko zenez, ondo ikasi zuten denek erdaraz erabili behar zela “*vascongadismo*” hau.

- *Ebanjelizazio filologikoa*: euskararen gramatikalizazioa eta alfabetizazioa. Herri apala ebanjelizatzeo haien hizkuntzak erabili behar zituztela xedatu zuten Erreforma eta Kontrarreformaren karieetara. Europan eta Ameriketara basajendearen ohitura eta sinesmenak garbitzen hasi ziren XVIan. *Manualak* eta *Katiximak* idatzi zituzten euskaraz, edo euskaldunak erdaraz ikasteko modua izan zezaten halako euskara latindar batean. Ez da harriztekoa euskal lehen gramatika jesuita batek idatzi izana, ezta ahalegin hori *inposiblea* zela pentsatu izana. Kezkabide zuten euskara, nola ohituko zuten samaldaren berria erdal erritmoetara euskaraz izan ezean? Hala ere, hori dena ondo joan zen Gobernamentu Zaharraren eskolan, izan ere estatu liberala heldu bezain laster Naziora bildu beharko zuen jende zibilizatu gabe horrek, eta nazioak erdaraz egiten du.

- *Nekrofilia zientifikoa*: galbidean omen zebilen euskal herriak zientzialarien begirada aztertzailea jaso zuen XIXan. Ez zen guztiz berria, baina aurrekarietan ere, paradigma moderno cartesiar eta newtondar horrekiko mesfidantza erakutsi zutenak topatzen ditugu, Rousseau esate baterako; eta haren geroztik, euskal Zerarekin interesa erakutsi zutenen artean gehienak Zera primitibo jator eta antzemanezinezkoaren xerka ibili ziren, nabariena ezbaierik ez, Humboldt handia. Harrezkero, Etnografiak ia-ia lortu zuen euskal Zeraren monopolioa. Herri zahar hura zer-nolakoa zen erregistratzen tematu zen etnologo-saldoa. Tematizazioak eta sistematizazioak, kasu honetan ere, xehe-xehe egin behar zuten bizi-mundua izan zena, museoan eta folk-bilduman ondo kabi zedin.

- *Identitate politikoa*: alienazioaren programa XVIIIaren bukaeran asmatu bazen ere, euskal aplikazio arrakastatsuak mende bat geroago etorriko ziren. Campion eta Arana aipatzen dira sarri, biak baitira alienazioaren programa aplikatzeko bi formulen aurpegia. Bietan bestelakatzeko eta arrotzaren kontra, benetakotasuna aldarrikatzen da. Bietan, dena den, Aranak lortu zuen publiko zabalago bat, hark kontatzen zuena ulertteraza eta aplikazio lasterrekoa omen zelako: zuen benetako izana zuen diferentzia da, *euzkotarrak* zarete zuek, kanpotar horiek ez bezalakoak. Baina Aranaren ekimena ez da sortzen euskaraz, ezta euskararentzat ere. Aranak Bizkaia du buruan, edo bestela esan, estatu liberalak eta industria-gizarte modernoak hondatu behar zuten foru-antolamendu instituzionala. Horretan,

**Euskal
herri-kulturak
bezala, herri-
kultura guztiek
eraldatu eta
moldatu behar
izan zuten; hitz
batean,
modernizatu
behar izan zuten.**

**Ezarian,
erdararen
artekaritza joan
zen sartzen eta
euskal jendeak
euskararekin
zuen lotura
psikiko zuzeneko
eta immanente
hartan esku
harturik zentzu-
emaile nagusia
bilakatu zen
erdara.**

esan bezala, euskara sinbolo bat da. Eta Aranaren ekimenean ere halaxe agertu eta halaxe garatu da. Alabaina, euskal nazionalismoaren eskutik sortu ziren eta sortu dira euskal Zergintzaren ahalegin eraginkorrenak. Adu sortu ederra jaio da ekimen horietan, Arana bera ere maisu izan zen sormen eta irudimen aldetik.

- *Diferentzia estetikoak*: Oteizak zioenez, estilo-kontua da gurea. Maiz erdaraz esan bada ere, euskaldun jendeak gogoz saiatu da hori bera erakusten, batez ere XX mendearen bigarren erdialdean. Erakusbide hoberena euskaraz bizi *nahi* izan duenarena da. Sentsibiltate hura idazle, irakasle, hezitzaile, begirale, olerkari, musikari, guraso, antzezle, euskaltzale edota bertsolarien oparia izan da. Haiek, beste askorekin batera, ibili dira euskal opariak egiten nonahi eta normahiri. Konbentzimendu moderno, humanista eta publizitario batekin: euskal Zera, euskal sena den aldetik, pertsonengan ondu behar den jarrerara-multzo bat da, edo disposizio psikikoen bilduma koherente bat, edo sentsibiltate bat... Hitz batean, euskal bizi-mundu batek emango zuen zera galdu hura.

- *Kontsumorako suntsikorren produkzioa*. Pasa da higiezinazko ondareen garaia, euskal Zera ezin da ondu, antza denez, jaiotetxe zahar eta jatorren itzalpean, ez da ondo hazten asaba zaharren abizenetan, ezta barne-barneko benetakotasun amultsuan, edo Lizardik esan bezala, *nork gure muñean dugun itzalean*⁹. Euskal Zerak jateko gutizietan, labeldun produktuetan, modako diseinu ederretan, doinu eta soinu exotiko diferentzietan, edo akaso izen eufoniko labur eta apainetan topatu du sorbide berria. Bereizgarritasunaren balio erantsia da gakoa, bizigarria nonbait. Baina, ohikoa merkatu-lehiaren mendean, kontsumo suntsikorra da. Oraingoan, diferentzia estetikoak kontsumitzen diren produktuetan dagoela esaten digute. Ez pertsonen disposizio landuetan. Euskal estiloa sen izatetik, *branding* izatera igaro da.

Aurreko puntuetan irakurketa partzial bat egin dut nahita. Objektuei buruz edo objektugintzari buruz aritu naiz. Erdal estatua eta harekin batera estatuaren tankera eta natura hartzen zihon jende nazionalizatuak (gizon heldu kaletar, burges, letratu eta bidaiatu hark) *euskalduna* nahikara asmatu nahi izan zuen hainbat helburu eta funtzioarako. Hala ere, identitate politikoan eta batez ere diferentzia estetikoan asmatze hori berriazko eta beregaineko proiektu bihurtu zen: humanismoaren oldeak hartaraturik, euskaldunak sortu beharraz kontzientzia hartu zuen euskal Zergintzak. Orduan hasi ziren serio *euskal jende berria* sortu nahian: euskaldun eskolatuak, euskaldun berriak, euskaldun modernoak... Proiektu

hau berau da kontsumo hipermodernoaren ordu honetan erdal Bestea galarazten ari dena: euskal kontsumigarriek egingo gaituzte euskaldun, ez norberaren praktika, engaiamendu, jarrera, ideologia.

6. EUSKAL SUBJEKTU MENGELA

I

Aurreko istorioa osatze aldera subjektuari dagokiona behar dugu. Euskal Zera iheskorra, harrapaezina, aldabera bide da. Ahaleginak ahalegin, harrizkoa omen den euskal Zera, jario gaseoso baten modura eskapatzen zaigu. Ezin guztiz determinatu, ezin guztiz zehaztu, gauzatu, asmatu, diseinatu, irudikatu, azaldu, esplikatu, kontatu, mugatu, sailkatu, analizatu... ezin guztiz geureganatu. Ezintasun horren kausa: euskal subjektua.

Ekarri dudan istorioan euskal jendea behinola bizi izan omen zen basajende bat baino ez da hasiera batean. Isila esan dudan bezala, mintzoa kendu zaiolako. Modernizatzaileak apaiz, irakasle, gramatiko, politikoa, antropologo, filologo, polizia edo mediku ari dela, kendu dio boza. Alabaina prozesu hura ez da izan lineala, ezta erantzun gabekoa, kontradikzioak eta anbiguotasunak ugari izan dira. Prozesua bera izan da euskal bizi-mundu ahul, zatikatu eta sakabanatuen iraupenerako giltza, han ahaldundu behar izan baitzuen bere burua euskal jendeak.

Bistan da, subjektu/objektu bereizketa zurruna gainditu behar dugu. Hartara, Jacob von Uexküllen “biltze funtzionala” baliatuko dut: aipatu ditudan oldar horietako guztiek zergintzan arituagatik ere, diskurtso- eta praktika-arma berriak asmatzen eta opatzen zizkieten objektibatu nahi zuten euskal jendeari. Egia da, askotan larrutik ordaindu behar izan zuela euskaldunak arma berri horien aukera; baina mundua aldatzen ari zela, ezin aldatu barik biziraun. Eta hortxe da muina. Euskal Zera asmatuz eta armatuz ibili diren aditu meneratzaile horiek guztien produkzioa, alde eta moldez, erabili du euskal jendeak: batetik, herri apalak hala moduz errepikatuz, berera moldatuz eta berenaz egokituz; bestetik, letratu eta ustez goi-kulturadunak produktore, hots, subjektu bakar zirelako ustean, kanpo-modak bere eginez nagusigoa ondo markatu nahian.

Hala bada, euskara matrize izateari uzten joan zen, arian-arian jendeek euskararekin zuten funtsezko lotura psikosozial hori galdu eta haren orde z erdal bizi-munduan bestelako biltze funtzionala asmatu zioten batzuek. Haren bidez erdal munduan biltze bat aurkitu zioten euskarari, guztiz galdu ez zedin, eta ondorioz ere, balioetsi eta zaindu beharko zuten nolabaiteko funtzioa izan dezan: sinbolikoa, ideologikoa,

Euskara eta oro har euskal mundu zaharra hainbat fasetan objektu otzan, lehengai sinboliko eta ondare beneragarria bilakarazi zuten.

**Ekarri dudan
istorioan euskal
jendea behinola
bizi izan omen
zen basajende bat
baino ez da
hasiera batean.
Isila esan dudan
bezala, mintzoa
kendu zaiolako.
Modernizatzailea
k apaiz, irakasle,
gramatiko,
politiko,
antropologo,
filologo, polizia
edo mediku ari
dela, kendu dio
boza.**

politikoa... Biltzeetan objektu eta subjektuak sortzen direnez, *agentzia* berri baterako atea zabaldu zion euskaldunari. Euskara objektibatuz euskalduna izateko modu eta aukera berriak sortu ziren; inguruko gauza eta egoeretan, min egiten omen zion horretan bertan ere, topatu du jarraipen-hari bat asmatzeko bide¹⁰.

Azter ditzagun, esaterako, azken oldar horien *obramenduak*: objektibazio zientifikoak diskurtso moderno eta sendo bat eman zion euskaldun eta euskal herritar askori diferentzia-identitate jokoan; Erromantizismoaren alienazio eta autoadierazpenaren hipotesiak oinarri ezin hobek izan dira motibazio politikorako; folk-bilduman mututu ziren kantak berpizturik *enjoy euskara* leloa sartu zitzaion buruan makina bat jenderi; euskal Zerako herria aberria zela sinetsirik hainbatek eutsi ahal izan zion deserriari, barne- eta kanpo-deserri arrotzari; Olentzero eta Mari Domingiren jaia asmatuz eta ospatuz euskal kutsu bat eman diogu kontsumo-zartadari, aitzakia aurkitu dugu behinola *eguberri* egun-argi berria dela kontatzeko... Zerrenda luze eta oparo horretan, denetarik nahasian eskaintzen digun zerrenda horretan, euskal Zerari darion euskal *nor* ikusi ahal dugu. Asko dira nor horiek, jarioa da euskal subjektuen izatea, baina joairaren aurka euskaldun tematzen lortzen dute euskaldun subjektua izatea. Nor horiek gainera objektuekin endredaturik bizi izan diren subjektuak dira; horregatik ere, objektu horiek artefaktuak izan direla esan dezakegu: diskurtso, praktika, sinbolo, gertaera, narrazio eta horiek denak *subjektu* gorpuztu direlako.

Kate luze hartan, inoiz izandako euskal Zeraren arrastoan, joan dira sortzen euskal subjektu berriak. *Ni euskalduna* esan duen orok neurri batean edo bestean diskurtso horietatik (*prêt à portereko* modaz lepo zeuden armairuetatik) hartu du zer jantzi eta nola eman zentzua euskalduntasunari. Artefaktuz egindako euskalduna, bistan da, artifiziala da: artifiziala da euren inguruko mundua (*umwelt* delako hori bezala) eta artifiziala da haren euskaltasuna. Esan genezake, euskaldun transgenikoak direla halakoak. Berez baino, beren erabaki ondo pentsatuaz direla euskaldun, dutela euskaraz hitz egiten, zaiela euskara gustatzen... Halako euskaldunari *meta-euskalduna* iritziko diot, edo Nietzschearena kopiatuz, *gain-euskalduna*. Esplikatuko dut zergatik: Modernitatean erdaraz egin da euskararen gaineko lana, euskararen aferak ebazteko gunea erdara izan da, beregain izan nahi duen euskalduna, bere ahalmenaz jabetu delarik, subjektu izaten hasten da *meta-euskalduna* den neurrian, hau da, euskarari buruz euskaraz pentsatzen eta erabakitzen hasten den neurrian eta horrela, euskarari buruaskitasuna aitortzen dion neurrian. Meta-euskaldunak, euskaldun huts eta soila ez bezala,

erdaraz bizi behar izan du eta ondo asimilatu du zer den diglosia; baina euskaldun izaten jarraitu nahi du. Diskurtso batek hala sinestarazita, euskaldun izateari aitortu dio egiazkotasuna. Meta-euskaldunak euskaldun izateari eusten dio berariaz, ez bizi-munduaren edota jendartearen eragin hutsaren ondorioz, ez da euskal bizi-mundu bizi eta sano batek eman zezakeen euskalduna, aitzitik, euskaltasuna du proiektu, osatu eta sendatu behar den egitasmoa.

Alabaina, gure zoritxarrerako, motibazio-sikatean bizi gara. Ideologiek ez dute lehen adina motibatzen, erlijio eta sinesmen sendo horiek ere indarra galdu dute fededun utilitaristen gogoan, lehengo instituzio sozialek eta euren autoritateek nabarmen galdu dute agintzeko eta diziplinatzeko behar zen kreditu-monopolioa... Nola interpelatu euskaldunari? Nola interpelatuko dio hark bere buruari? Nola gaudituko du *erdaraz hitz egin* xuxurlatzen dion mundu-ahots liluragarriaren eragina?

Ohar bat: interpelazioaren indarra biltze funtzionaletik dator, hori da subjektu mengelari falta zaiona, euskara-euskalduna lokatu dira, bizi-munduaren matrizea zenean lotura hori osoa zen, objektu sinboliko bihurturik zertxobait berreskuratu zen lotura, orain euskalduntzearen kontrako kanpaina bortitz erdian, euskararekiko lotura guztia lokatzeko diotso erdal Besteak meta-euskaldunari. Txarrena da Bestea aspaldi bihurtu zela Nia; interferentzia atmosferikoa izanik ere, ondo pertsonalizatuta dugu.

Eta pasadizo bat: Žižek filosofoak behin baino gehiagotan aipatu duen amish jendearen ohitura bat argigarri izan dakiguke. Antza denez, amish gazteek euren komunitatetik irten eta hirira doaz kanpoko mundua ezagutzeko. Han egoten dira denboraldi batez, eta ondoren komunitatera itzuliko diren ala ez erabaki behar dute. Agidanez, gehienak itzultzen dira. Žižekek esan bezala, itzultzea erabaki dezaten hezi dituzte, amish bizimoduaren produktuak dira. Bizimodu hori eta haiek biltze funtzional bat dira, mundua bizitzeko eta sentitzeko duten modua baita. Itzuliko al dira euskaldun gazteak Erdara hiritik euskal komunitateetara?

Euskaldunok ez dugu, ez nire ustez, amish komunitateen indarra, kohesioa eta kontsistentzia. Euskal komunitaterik ere ez dakit ba ote den. Baina, neurri apalean euskal bizi-mundu erreferentzial asko ditugu, beti-beti *egiazko* bizi-munduak ez badira ere. Horietan landu dira eta estekatu euskararekiko lotura (afektibo, psikologiko, soziala...) eta lotura hark erakarriko ditu Erdarara joan diren gazte horiek. Gure kasu honetan, aldiz, ez da behin betikoa, itzulera behin eta berriro goxatu beharko da. Gure lana, beraz, bizi-munduak barik, itzultzeko bizi-aterpe erosoak egitea da. Eta kasu, itzuli behar duten gehienek ez dute Erdara hiritik kanpo bizi, sekula ere ez.

***Aipatu ditudan
oldar horietako
guztiek
zergintzan
arituagatik ere,
diskurtso- eta
praktika-arma
berriak asmatzen
eta opatzen
zizkioten
objektibatu nahi
zuten euskal
jendeari.***

**Modernitatean
erdaraz egin da
euskararen
gaineko lana,
euskararen
aferak ebazteko
gunea erdara izan
da, beregain izan
nahi duen
euskalduna, bere
ahalmenaz jabetu
delarik, subjektu
izaten hasten da
meta-euskalduna
den neurrian, hau
da, euskarari
buruz euskaraz
pentsatzen eta
erabakitzen
hasten den
neurrian eta
horrela, euskarari
buruaskitasuna
aitortzen dion
neurrian.**

7. ADIERAZKORTASUN GALDUAREN BILA

I
Euskara subalternoa dela argi dugu denok. Erdara aspaldi nagusitu ziztzaion. Eta XX mendearen hondarrean, euskaldun gehienengan erdara nagusitu zen. Hutsaren hurrengoa da euskaldun elebakarren kopurua, zaharrak ez direnak hiztun-erroldean erregistratzen ez diren haurrak: hazi ahala ume euskaldun elebakarrak ikasi behar du erdal mundu zabal batean bizi dela, euskara bizitza agerian ez dela gauza handirik, ikasbide praktikoa da gehienetan, hori ikasi ahala ikasiko baitu “*euskarak euskaldun egiten gaituela*” edota “*gu euskaldunak garela euskalerrikoak*” eta bere buruari galdetuko dio, hartara emana izanez gero, zer balio duten tautologia horiek erdarazko jario anitz zabal eta ondo hornituan.

Galdera eta ondorioak, bistan da, jario horren tamainakoak izango dira, umeak koskortu ahala hazten eta anizten zaizkion inguruak euskaraz atzematea badu euskaraz biziko ditu era naturalean, haustura barik. Hainbat lekutan hala dela esaten badidate ere (“hemen euskaraz bizi gara”), hirikoa nauzue, erdal hiriko behatzailea, eta nire iritziz, erdal hiriak aspaldi jan zuen euskal herria; guztiz fagozitate ez badu ere, alde guztietatik inguratu, zatikatu eta hausten ari da. Hedabideak bide, erdara batua etxe guztietara sartua delarik, euskara ez da ezta etxe-barneko esperientzia segurua. Gero eta gutxiagoa. Zeresanik ez agerian. Agerira behar duenean, gazteak ageriko hizkuntzaren baliabideak erabiliko ditu, natural, erdarazko berbak, esaerak, ateraldiak, hitz-jokoak, irainak..., eta erdaraz egingo du, normal. Eta, horrekin denarekin batera, euskara erdararen ikuspuntutik juzgatzen hasiko da; umore-saio batean dioten moduan: “nola esaten da euskaraz *nipadidos*, ezta jaungoikoarentzat ere? buah!” Bai, hori ez dute euskaraz bizi, ez dute ahots-kolpe hori euskaraz asmatu, ez dute euskaraz zuzenean jaso eta erabili. Non dugu *self-service* hori? Erdara deritzon hiri agerian. Baina, hala ere, galdera egiten dute, noizbait ere euskarara itzuli nahi dute, atxiki dituzte hondar apurrak matrize, bizipen eta dotrina haieztatik. Nahikoa al da? Norberaren hautua izan daiteke itzulerara? Nahikoa al da behinolako eta balizko “erro psikosozial” edo “matrize sinboliko” delako hori?

Oro har, euskara ez da bizi-praktiken matrizea, ezta atmosfera ere. Hala den kasuetan atmosfera babestu eta maiz artifizial samarra baino ez da. Badirudi mundu agerian euskarak ondare sinbolikoa behar duela, hornidura sinbolikoen harrobia. Subalternoak azken buruan anitz erabilera ditu: estetiko hutsak (euskal kutsu estetikoko kontsumo-gaiak), politikoak (euskara Euskal Herriaren sinbolo bat da), psikologikoak

(norberaren autokontzepturako, norberaren taldekidetza adierazteko), ekonomikoak... esan liteke adierazkortasuna bere alde duela euskarak. ez da horrela.

Cartesiarrek mundua izendatu nahi dute. Mundua kanpo-ikuspegi batetik ikusten eta ezagutzen dutenez, metodo on bat behar dute gogamenetik mundura jauzi egitekotan, eta munduko gauza eta gertaera guztiei izen bana jarri nahiko liekete, denak bereiziz, sailkatuz eta ordenatuz, diren-direnean. Hartara, konnotazioaren laino eta ilunak ezabatu behar dituzte, argitasun metodikoa ezarri nahasmendu den orotan. Ideala, beraz, izaki eta izate guztiek izen bana, izen berezia edo propioa izatea litzateke. Hala egiterik balego. Izen propioak, Kripke logikoak zioenez, “izendatzaile zurrinak” dira, hau da, gerta zer gerta, izenak izendatuari eusten dio. Horrela burutuko litzateke Arrazoiaren Hiztegien egitasmo zahar hura: izan guztiei izen bana. Baina konnotazioak ezin dira mugatu, ezta giltzaperatu ere. Uholdeen indarrak harresiak gainezkatu eta eraitsi egiten ditu behin eta berriro.

Euskararen kasuan gerra horren zantzuak begi bistakoak dira. Euskarak, kolonizatu eta azpi-mintzaira bihurtu ahala, bizi-munduaren abaroa izateko kemena galdu zuen, baina aldi berean erdal mundu unibertsean gure *partikularitasuna* adierazteko harrobi ezin hobea bilakatu zen. Jakina, galdu zuena “konnotatzeko gaitasuna” izan zen, eta irabazi, aldiz, denotatzeko gaitasuna: euskarak ez du mundua “ordezten” (are gutxiago, eraikitzen, artikulatzen edota eratzen), euskarak, askoz jota, munduko gauzei “izendatzaile zurrinak” jartzeko balio du. Ez dute esanahirik, nonbait, baina hau edo beste seinalatzen dizute: *Iker*, *Dornaku*, *Aiora* edo *Doltza* izenen gisan, *Osakidetza*, *Ertzaintza*, *Construcciones Etxeandia Eraiki* edo *Panadería Okinder* kasuetan bezala... Euskararen lana denotatzea da; konnotazioa, esanahitik “kodera” lerratu da, euskara edo euskal Zera baino ez dute euskal hitzek konnotatzen.

Erdaraz egiten dugula, neutro, zibil, zabal, aberats eta unibertsal egiten dugunez, munduaz aritzen gara lasai asko. Gardena da mintzaira boteretsu hura. Gutxitan kezkatzen gara “formaz”, hau da, darabilgun “kodeaz”: mezua da mezua. Baina euskaraz ari garela, zenbatean lortzen dugu “jario psikiko hori”. Zenbatean egiten dugu estropezu hitzekin, aditzekin, esarekin, fonemekin...? Onerako eta txarrerako izaten da: zein polita zuen euskara edo zein zatarra neurea... Bietan, azken finean, mundua ilundu eta urrundu egin zaigu, euskararen indar eratzailera formaren zulo beltzean barrena jausi eta hondoratzen zaigulako. Eta horrela, sarritan euskaraz egiten dugun jardun nagusia euskarari buruz hitz egitea da. Ez da txarra, txarrragoa da “konnotatzeko gaitasuna” bera ere galtzen dugula “kodeaz” eta

**Meta-
euskaldunak
euskaldun
izateari eusten
dio berariaz, ez
bizi-munduaren
edota
jendartearen
eragin hutsaren
ondorioz, ez da
euskal bizi-
mundu bizi eta
sano batek eman
zezakeen
euskalduna,
aitzitik,
euskaltasuna du
proiektu, osatu
eta sendatu behar
den egitasmoa.**

Erdal hiriak aspaldi jan zuen euskal herria; guztiz fagozitu ez badu ere, alde guztietatik inguratu, zatikatu eta hausten ari da.

ez “munduaz” ari garenean. Oro har, adierazkortasun funtzionala galtzen da bide hartatik. Efektuak sortzeko, besteei eragiteko da mintzaira eta kodea ez bada segurua, efektuak eragiteko ahalmena ahultzen eta higatzen da. Erdal mundu oso bat dugu gure inguruan, gure baitan bezala, eta euskaraz adierazi nahi dugunean mundu horretako zerbait, gure mundu horretako zerbait, zer egin: itzuli?, zuzenean erdaraz txertatu?, moldatu? Itzulpenean indarra galtzen da, edota zentzua, eta txiste txarretan bezala, zer esan nahi genuen azaldu beharra dugu. Erdal “kolpeak” txertatuz, euskaraz funtzionalagoa egiten dugu, baina haren ezgauza aldarrikatuz.

Horrenbestez, erdal munduan euskal Zeraren merkatu txikian hau edo hura “zurrun denotatzeko” balio du euskarak, esanahirik gabeko izen propioak egiteko nonbait, konnotazioa kasu horietan euskal Zera bera delarik. Euskal munduan, berriz, euskaraz adierazkortasuna galtzen doa, konnotazioak biribiltzeko erdara behar duela, denotazioak zehatz egiteko aberastasunaren anabasari aurre egin behar diola... Bitxia, beraz, lan-banaketa: erdaraz denotazio zurrunak egiteko balio digu euskarak, nahikoa adierazgarria da euskal Zera konnotatzeko (“*Irati, vamos al gazte*”, “*Han presentado el servicio Kontsumobide*”), euskaraz konnotatzeko ahalmena erdi galdurik, denotazioak egiteko oparoen egia (“*atzokoa ke pasada tia*”, “*ekarri didate mikroondasa / mikrouhin-labea*”). Oparotasunarena egiazko komunitate bat bagenu konponduko litzateke komunikazio hutsaz, hori izan ezean, hedabide eta erakundeak dira aditu eta arau-opatzaile. Konnotazioarena artezteko bide bakara dugu: euskaraz bizi, euskaraz bizitu.

Agerikoa da euskalgintzaren helburua: euskaraz bizi-hizkuntza bizia izatea, osoa, denotazio eta konnotazioetan aberats, oparo eta bizkorra. Bizi-munduko matrizea edo biltze funtzionalaren mintza izango balitz, halakoxea izango litzateke. Eta euskaraz natural, erdararen artekaritzarik gabe eta euskaraz bera hizpide izan barik, biziko genuke, alegia hizkuntza sendoak bizi diren moduan: axola gabe. Urrun samarra dugu tenore hori. Harako bidean euskaldunak bere buruaren behatzaile fin eta zorrotza behar du, automotibazioetan eta autozuzenketetan aditu trebatua. Hartara, bizi-aterpeen beharra du, eta diskurtso limurtzaileena eta kanpomotibazioko *coacher*ena eta hizkuntza-baliabide merke eta erosoena...

8. HIRIRA ITZULI, KONTRADIKZIOETAN BIZI

Hiria sakabanaketaren orduan bizi da. Oraindik orain pasaerako hiri hipermodernoan naziotasuna da nagusi, baina gero eta gutxiago: hedabideek, eskolek, administrazioek, legeek edota kontsumo-sareek ez dute nazio-forma besterik gabe ezartzen. Kapitalaren mendekoak diren aldetik, glo-

balizazioaren eragile sutsuak bilakatu dira eta kultura (hau da, merkatu) globalaren artefaktuak (merkantziak) ari dira sartzen gogo bizi ez disimulatuaz. Jendeek ondo ikasi dute zertan den joko hipermodernoa: ibili beharra dago, hara-hona, gelditu barik, erroen orde zegoak behar omen ditugu. Eta oroz gain, azalean ibili, ez hondoa jo gero, eta igaro, ez gelditu.

Berriro diot, gehiegikeria dirudi deskripzio zabar honek, baina joera sozialen tentsioa hor da. Eta hiria da, ezbairik ez, polikronien tentsio-eremu nagusia. Gurean ere bai. Euskal Herriko hiriak erdal hiriak izan dira hiri moderno izaten hasi zirenetik, espainiar eta frantziar hiri probintzianoak. Euskal abertzaletasunak eta euskaltzaletasunak ez zuten helburu hiri nazionala. Baina, jakina, ezin izan dira bizi hirietatik kanpo. Bilbo da historia horren protagonista nabariena¹¹.

Gaur hirian jokutzen da euskararen partida. Batetik, hiriak direlako jende gehienak biltzen dituzten biziguneak, baina beste alde garrantzitsuago batetik, hiri-bizimodua delako guztiz nagusi euskal lurralde guztietan. Beraz, hasieran aipatzen nituen bizimoduetan bizi den jendea da jende euskalduna, haietan bizi arazten du, edo ez, euskara.

Habitatari dagokionez, euskarak hor izan du indargune bat. Elkartzen, batzen eta auzotasuna lantzen jendeak elkar ezagutu eta lagunarteko sareak atondu ahal direlako, elkar- eta talde-itsaso horretan goxoago bizi izan da euskara (nahiz eta askotan, sinbolo hutsa izan). Okerrago du pasabideen hirian. Han, fragmentazioan, atomizazioan eta kontsumo-harreman joankorretan, euskara galdu egiten da. Arrazoi bakarra dago horretarako: euskara ez da atmosfera orokorra, ez du esan barik doazen gauzen indarra, ez du egitura orokorren sendotasuna. Ez da normala, eta ez-normala dena artez eta moldez bizi beharra dugu, hitz batean: artifizioz. Euskal bizi-mundu partzialak eraikiz euskara matrize gisa bizi-berritzen dugu neurri batean edo bestean. Atmosfera sortzea ezinbestekoa zaigu, batez ere haren bitartez euskararekiko biltze funtzionala lortu eta babestu egiten delako. Gogoan izan biltze horiek “mundu bat” behar dutela, euskarazkoa, baina ez direla abstraktuak, hau da, gauza, harreman edota egoera eta praktika zehatzetan mamitzen direla.

Estilo, bizi-modu eta ibilbide atomizatuen hirietan bizi omen gara. Halakoetan euskarak ez du atontzen munduaren irazki oro hartzailea, askoz jota estilo-kutsu bat, osagarri bat, izan daiteke. Horra lehendabiziko lana: estilo guztiak euskararen baitan behar ditugu eta ez euskara estilo batera murriztuta. Eta, hala ere, beste biderik ez du meta-euskaldunak: euskal estiloari eutsi behar dio. Haren *ex-zentrizismoa* erakutsiz, gainera¹². Ohikoa eta arrunta irauliz izaten baita euskaldun.

Oro har, euskara ez da bizi-praktikaren matrizea, ezta atmosfera ere. Hala den kasuetan atmosfera babestu eta maiz artifizial samarra baino ez da.

**Erdaraz egiten
dugula, neutro,
zibil, zabal,
aberats eta
unibertsal egiten
dugunez,
munduaz aritzen
gara lasai asko.
Gardena da
mintzaira
boteretsu hura.
Gutxitan
kezkutzen gara
“formaz”, hau da,
darabilgun
“kodeaz”: mezua
da mezua. Baina
euskaraz ari
garela, zenbatean
lortzen dugu
“jario psikiko
hori”.**

Azken honetan du fedea kulturistak, euskara hautu kulturala dela uste duen horrek: euskal giharra sendotuko da norberak gihar hori landuz gero, dio. “Hautua da, hautazkoa ez denean?” asaldatu ohi dira nire moduko politikeroak. Izan ere, politikak eta soziologiak arima ustelduta dugunok norberaren hautuetan sistema soziopolitikoaren eragina ikustez gain, esku planifikatzaile eta programatzailea ikusi ohi dugu. Estatua, esaterako. Eta nire ustez hor dago oraingo erronka: euskalduntze soziopolitikoan. Bestela esan, indar sinbolikoari eutsi behar diogu tinko, baina ez erdal munduan euskal Zera erabilgarriak produzitzeko hain zuzen. Helburua euskararen hedapena da, zehazkiago: euskarazko bizigune eta bizi-praktiken hedapena. Bistan da hori bitara egin daitekeela: direnak uztartuz eta euskal jendeen erritmoa sinkronizatuz (baina honetan geratuko bagina, bizi-estiloko komunitate soil bat izatera mugatuko ginateke) edota erdal eta euskal jendeak euskararen erritmo orokorraren baitan biltzen. Nola ordea? Argi dut euskal herrietan, Euskal Herria eraiki artean, euskarak behar duela diskurtso-zentraltasun osoa eta aldi berean praktika oro biltzaileak behar ditugula. Anartean ere, subjektuaren ideia berri behar dugu. Euskal subjektua ez da jendea bere hartan: jendeez gain, jendarteko praktikek, objektu sinbolikoek, elkarte eta erakunde eta horiek guztiek sor lezaketen atmosfera da egiazko euskal ekintzailea, sare-ekintza da izatez. Jende soila, eskubideetan eta beharretan fede handia izanda ere, ez da eragile bultzada orokorraren kemena izan ezean. *Euskalduntzea* deritzogun tentsio soziopolitikoan gorpuztu behar da euskal agentzia, bizi-praktika bizigarri eta abaro babesgarriak lagun.

Arestian amish gazteek egin behar duten hautuaz hitz egin dut. Mormoiek duten beste bat aipatu nahi dut orain: sekta askok bezala, mormoiek proselitismoan teknologia fina landu dute, dakizuenez, misiolari jardun behar dute gaztetan: arrakasta handia al dute misioan? Berdin da. Funtsezkoena, ez gaitezen engaina, ez da fededun berriak erakartzea, funtsezkoena gazte horien engaiamendua estu atxikitzea da. Pascalek esan zuen aspaldi: “egin ezazu otoitz belauniko, etorriko zaizu fedea”. Disonantzia kognitiboaren ikerlariak gorpuzte teorikoa eman zioten Pascalen baieztapenari: beste bat konbentzitzen saiatzen denak bere burua konbentzitzen du. Militantismoaren ondorio argiena hura da. Hortaz, programa bera behar dugu euskalgintzan: gazte euskaldun guztiek misioetan eman beharko lukete urte pare bat. Horrela ikasiko lukete ondo nola konbentzitu behar duten beste inor jarrera edo portaera alda dezan. Benetako beste hori haiek beraiek dira, jakina. Ez da broma. *Euskalduntzea* jendearen portaera aldatzea ez denean (euskaraz egin dezaten), kontrakarrean doazen portaerak sustatzea de-

lako (euskaraz egiten jarrai dezaten) edota objektu sinboliko huts bat portaera praktikoa positiboa dela sinestaraztea delako (euskara ikasi edota erabil dezaten harro). Kasu guztietan motibazio-lana. Motibazio-tresna eraginkorra *habitus* delakoa da. Bizi-munduan ainguratutako disposizio praktikoen multzoak, baina horiek euskalduntzen ez badute, mundua arras erdalduna delako edo, orduan zuzen jo ohituretara, ahal delarik libro aukeratutako ohituretara. Bidea ez da balio, dotrina, sinesmen edota diskurtsoa, bidea horiek guztiak egitean, defendatzean eta praktikatzean egiten dugun ahalegina da. Sinboloak egitean eta erabiltzean, euskara sinbolo egitean eta erabiltzean, sinboloa da gutxienekoa, hor indar motibatzailea portaera bera delako. Portaera militanteak dakar sinbolismo berria: ekintzak dakar fedea. Eta dotrinak, sinboloak eta erritualak behar ditu ekintzak nagusi izatekotan.

Baina programa honek badu bestelako irakurketa bat: Žižekek dioen moduan, Pascalen aholkua ona da ez soilik sinesmena etor dadin, ona da haren kargaz eta setaz libra gaitzen: egin egiten dugunaz sinesmenik gutxi behar dugu eta, ez da fede-kontua ohitura baita, eta berdin da zer demonio sinesten dugun horretaz. Ai, euskara ere halako ohitura izan balitz, zelango atsedena! Atsedena hori behar dugu. Noiz edo noiz badugu halakoa, eta orduan fedearen orde, militantismoaren orde, ohitura komun kolektiboen eta gozamen estetikoaren konplizidadeetan murgiltzen gara. ●

BIBLIOGRAFIA

Aizpuru, Mikel (2012), *1920ko ezohizko estatistika: Bilboko euskaldunen kopurua, jatorria eta bizilekua*; <http://www.euskonews.com/0609zbk/gaia60902eu.html>; martxoan bistaratua.

Azurmendi, Joxe (2007), *Humboldt. Hizkuntza eta pentsamendua*, UEU, Bilbo.

Azurmendi, Joxe (2008), *Volksgeist. Herri gogoa*, Elkar, Donostia.

Berlin, Isaiah (2008), *El mago del norte. J.G. Hamann y el origen del irracionalismo moderno*. Tecnos, Madrid.

Bernárdez, Enrique (2008), *El lenguaje como cultura*, Alianza Editoria, Madrid.

Bourdieu, Pierre (1997), *Méditations pascaliennes*, Editons du Seuil, Paris.

Larrea, Jose Maria (1994), *Euskaldungoa erroizturik*, Pamiela, Iruñea.

Lash, S. & Lury, C. (2007), *Global Culture Industry*, Polity Press, Cambridge.

Latour, Bruno (1991), *Nous n'avons jamais été modernes. Essai d'anthropologie symétrique*, Paris, La Découverte.

Latour, Bruno (2005), *Reassembling the social. An introduction to Actor-Network Theory*, Oxford, OUP.

**Gaur hirian
jokatzen da
euskararen
partida. Batetik,
hiriak direlako
jende gehienak
biltzen dituzten
biziguneak, baina
beste alde
garrantzitsuago
batetik, hiri-
bizimodua delako
gutziz nagusi
euskal lurralde
guztietan.**

**Estilo, bizi-modu
eta ibilbide ato-
mizatuen hirietan
bizi omen gara.
Halakoetan eus-
karak ez du aton-
tzen munduaren
irazki oro har-
tzailea, askoz jota
estilo-kutsu bat,
osagarri bat, izan
daiteke.**

- Lotman, Yuri M. (1990), *Universe of the Mind: A Semiotic Theory of Culture*, London: I.B. Tauris.
- Sharov, A. A. (2011), "Umwelt theory and pragmatism" in *Semiotica*. Vol. 2001, 134: 211-228
- Toulmin, Stephen (2001), *Cosmópolis. El trasfondo de la modernidad*, Península, Bartzelona.
- Zuberogoitia, Aitor & Zuberogoitia, Pedro (2008), *Bertan Bilbo*, Bilboko Udala.

OHARRAK

1. Euskal jendeak euskaraz egiten duena da, hala nola euskaraz dakielako euskara erabil-tzen duena, baina euskara egiten duena ere bai: asko izan dira eta oraindik ere badira euskaraz egin dezagun lan egin duten erdaldunak, eta are gehiago, erdaldun horiek dira euskalduntzearen xedea. Ez dira euskaldunak, baina ez genuke ulertuko euskalgintza haiek euskal jendearen erreferentzian sartuko ez bagenu, haiek, dena den, sarrarazi behar ditugu euskararen baitara, ez daitezela kanpoan gelditu euskara begiratzeko paisaia bat izango balitz bezala.
2. Azpimarratu nahi dut hiriak ez duela ezer euskararen kontra, hau da, prozesu historiko, politiko eta (barkatu hitza) kolonizatzaile baten ondorioz baztertu da hirietatik euskara. Beti izan dira euskaldunak Herriko hirietan eta oso-osorik kaletar burgesak, eta askotan euskararen aldeko sutsuak. Estatuek ezarri duten markoan, dela merkatuan, dela admin-istrazio politikoan, hiriak erdal agenteak izan diren bezala, euskal agente *erresistenten* sorguneak ere izan dira. Euskararen hiri-historia idatzi gabe dagoela uste dut, nahiz eta asko jakin horretaz.
3. Toulminen ustetan, Europako periferia intelektualean erein zen Modernitate kanoniko arrazionalaren alternatiba: XVIIIan, bai Hume eta Hutton Edimburgen, bai Vico eta Gian-none Napolin, bai Kant, Herder, eta Hamann Königsbergen Erromantizismoaren olda-rraren haziak ereiten ari ziren nonbait (2001, 205). Hamanni buruz ikusi Berlin (2008), Herderenak badugu euskaraz irakurtzea Joxe Azurmendiri esker.
4. Jarraitzaile nabariak: Heidegger, Cassirer, Lacan, Deleuze, Sloterdijk, Agamben... Eta soziologia fenomenologikoan, Schütz, Berger, Luckmann... Behingoan gerokoak aipatu gabe, lehendabizikoa aipatu nahi nuen.
5. *Habitus* eta *habitat*, zioen Bourdieuk, bat eta bera dira jendarte egonkor eta barne-bereiz-ketarik gabekoetan. Halakoetan, antza denez, jendeak disposizio praktikoeekin berdindu behar du bere burua, ez du hautatzerik, jendartean direnak baino ez dira (Bourdieu 1997). Euskaldun elebazarren eremuan, euskara *habitusaren* matrize inkontzientea baino ez da.
6. Dominaziorako artifizioa dela argi izan dute batzuek, aspaldidanik: "... la lengua castellana (...) se extendió después hasta Aragón y Navarra y de allí a Italia, siguiendo la compañía de los in-fantes que embiamos a imperar en aquellos Reinos. (...) acordé ante todas las otras cosas reducir en artificio este nuestro lenguaje castellano, para que lo que agora y de aquí adelante en él se escribiere pueda quedar en un tenor, y estender se en toda la duración de los tiempos que están por venir." Antonio de Nebrija, *Gramática Castellana*, 1492.
7. Euskararen galtze soziolinguistikoa azkartu aurretik, Europako mintzaira gehienak bezala ondo egokituta zegoen pentsamendu greziar-latindarra adierazteko, kristautasunak egin zuen lan hori, filosofia eta epistemologia klasikoaren arau zein beharretara "mintzaira hezigabeak" makurtzen, fintzen eta trebatzen (ikusi esaterako: Bernárdez 2008, 289 orritik aurrera). Horrek ere erakusten digu zer urrun dagoen, jatorrizko "*weltanschung*" mitiko hura (tira, halakorik inoiz izan bazen ere, mintzaira bezala etengabe aldatzen eta zabaltzen eta uzkuertzen ibiliko zen pentsatze-jario bat baino ez zen izango, nire ustez).

8. Identitatea eta izatea nahasten direnez, ohar bat: ikerbide argia izan dezakegu euskal izateaz euskaraz bizi izan den jendearen izatearekin berdintzen badugu, izate hura jario aldakor eta gaseosoa izanagatik ere, zeharka eta metaforen bidez kontaktu ahal dugu eta ezarian kontaera horiek kondairatik historiara pasatu (inoiz bukatuko ez den mintzo-jario bat da hori berori ere). Baina kontua nahasten da, ilundu eta uhertu, identitatea “identikoa” izatearekin berdintzen badugu. Betiereko muin bat ediren nahi badugu jario hartan. Jarioak badu muga bat, izate bat duelako, euskararena (ibaiak bezala, jario honek ibarra bustitzen du, eta narotu, baina funtsean ura da). Izate hura *guk* gure oraingo honetan ezarri dugu, *gu* hona ekarri gaituelako uste baitugu, *guk* halako izatearen gaineko diskurtsoaz eraikitzen dugulako *gure gutasuna*... Identikotasunik gabe, baina bai jaso dugun izate-asmo batekin, haren bidez identitate bat asmatzen dugu, kontaera-hari bat izate-jario baten kontu emateko.

9. *Gure Mintzo* poeman: «Aren (S. Aranaren) *argibidez ni yabetu/ enegan bazala norbait atxilotu./ Ordun, yetxi nazu lezera; / nork gure muñean dugun itzalera (...)* Orra noizpait ere beeraño el,/ ta leotza arki dut ondoaren sabel;/ ta, leotzean, il-iduri,/ gizalaba eder odol-gabez zuri.»

10. Antzeko proposamena da Latour eta lankideena: aktore-sarearen teoria (ikusi: Latour, 2005). Ikuspuntu horretatik, euskal aktorea gauzaz, egoeraz eta pertsonaz ehundutako sare bat izango zen (ez bakarrik jendea). Berri diot: auzia ez da identitatea, izatea baizik. Euskal izatea atzera eta aurrera begira, hau da, izandakoaren proiektzio eta izango denaren proiektu gisa hedatzen den “zentzu-jario bat” da, hara biltzen dira maiz elkarren kontra, gauzak, gertaerak eta lagunak... Ez dakit sarea oso metafora ona den euskaltasuna deskribatzeko, nik joko-zelaia nahiago dut, edo adostasunez eta gatazkaz betetako komunikazio-joko gaitza. Bestalde, objektuen xarmaz, esanguraz eta agentziaz, kontuan hartzekoak dira Lash eta Luryren ekarpenak (2007). Hipermodernitatean, nonbait, mintz sinbolikoa gauzetara “jausi” egin da; horri *thingification* (*zertzugintza*) deritzote.

11. Ikusi Zuberogoitia anaien lana, 2008. Eta gogoan izan poeta bilbotarrak ez zuela gailegoen umeentzat euskal eskolarik nahi, euskara hirian ezin baitzen, nazionalista ez zen baten irudikoz, ororen mintzoa izan. Euskara, nazio-mintzoa ez bada sektarioa da, hizkuntza-komunitate batena soilik.

12. Hala denez, elkarri erraztu behar diogu lana, batez ere, jakinda nahikoa ortopedikoa dela gaurko gure euskaltasuna. Artefaktuz eta gadgetez beteta dago, ezinbestean, erdal atmosfera itogarrian ibili behar baitu. Modan jartzen ez badugu euskara motz eta itsusi guztia, gazteek ahoa itxiko dute aparatua ikus ez dadin eta zaharrek makila etxean utziko dute gazte -irudia eman nahian.

Indar sinbolikoari eutsi behar diogu tinko, baina ez erdal munduan euskal Zera erabilgarriak produzitzeko hain zuzen. Helburua euskararen hedapena da, zehazkiago: euskarazko bizigune eta bizi-praktiken hedapena.